

BERBETA BERUA

Alberto Telleria



BERBETA BERUA



Egilea: Alberto Telleria

Laguntzaileak: Juan Martin Elexpuru eta M. Nekane San Miguel

Argitaratzailea: Badihardugu Euskera Alkartia

Badihardugu posta zarrendia: badihardugu@yahoogroups.com
143 posta-kutxa · 20600 Eibar

Diseinua eta maketazioa: Edurne Arenaza

Marrazkiak: Roberto Landa "Mundina"

Inprimategia: Gertu, Oñati

L. G. : SS-0250/03

I. S. B. N.: 84-607-6843-0

6 Despektiboak	12
6 Haserrearen adierazleak	23
6 Ezaugarri fisikoak	27
6 Jana eta edana, taberna girokoak	31
6 Amodioa eta sexua	35
6 Bestelakoak	31
6 Gaztelania euskara	39



Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta
Udal hauen dirulaguntzarekin argitaratutako liburua:



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



ANTZUOLA
UDALA



ARAMAKIKO
UDALA



ARETXANEA ITAKO
UDALA



ARRASALIKO
UDALA



ELGOIBARKO
UDALA



ERMUA
UDALA



GETAKO
UDALA



IBARRA
UDALA



MUNGIA
UDALA



ESKORIATZA
UDALA



GALDAMES
UDALA



LARRABETZU
UDALA



MENDAROKO
UDALA



MUTRIKUKI
UDALA



ONDARROA
UDALA



SORALUZE
UDALA



Idisko ederra haiz: atze zabala, luzia eta mardua; hire esparruak Salbador buruan,
Aporte eta Zalbide aldian jauazen, baiña aspaldi geratu jatazan txiki.
Munduko gizona izan. Kafe batekin zorra pagauta;
baiña badakik, sorrari olixua!

Txiki haundixa haiz; gauzak urriñetik ikusten dittuk Gasteizko hire egittik.
Berotuko hintzan, bai, ernegau arte sarrera ziztrin honen zain:
eguna ipiñi eta ezebez, hurrenguan bez; telefonua zer danik bez.
Nere aittajunak esaten juan lehenengo egin eta gero egon egin bihar dala,
baiña nik aldrebes ikasi. Zurixa izatian kontuak. Hala ta be, eskerrrik asko.

Zuen begixak miruenak baiño zorrotzaguak dittunk.
Eskerrak zuei akats gutxikin edo barik plazaratuko da liburuxka hau.
Eskerrik beruenak **BADJHARDUGU** kidioi:
Leire, Maripi, Koldo, "Trunboi", Pello, Nerea, Iban, Juan Martin, Nekane eta Itziar.

San Josietan hasi giñan batzen San Juanen, Esperantza inguruan,
San Miguel, Elexpuru eta hirurok. Ixa urtebetera esperantzia egibihurtu da,
eta hainbeste santu eta elizekin, izenez behintzat, bedinkaziño osuakin.
Kukua entzun aurretik mahai baten aurrian juntau biharko giñake.



SARRERA

Aspaldiko kontua da inguruko herrietakoek esakera honekin eibartarrei adarra jotzen zietela, erdi euskara erdi gaztelera egiten omen zutelako: “*Eibartarrena, hau da hau tienpua trigua maduratzeko*”. Ez dut uste nik Eibarren garia eraiten zen sasoian horrela hitz egingo zenik; hala ere, adarra jotzeko edozein aitzakia da ona. Baino, gaur egun nor ausartu adarra jotzen eibartarrei, takian potian entzuten diren horrelako esaldiak entzuten direnean: “*Jode Mikel, egindako kañua el no va más izan da*”; “*Holako entradillak egin ezkero, ez dozu asko ligauko*”; “*Superguaia da hau, tio*”; “*Zu zara plastia. Venga, no me comes la oreja!*”; “*Ba zubi zatixa jausi eta kolumnia mobidu egin zan, eta gu hemen gaoz, zelan esango neuke..., aislados del mundo esaten dana*”

Gaitzerdi, esango luke norbaitek duela hiru edo lau hamarkada ez bezala, gutxienez orain euskara edozein kale bazterretan entzuten da. Eta hori da gazteenek erabiltzen duten seinale. Bada, ordea, zerbait ondo ez dabilena: gauza gara molekula bat zer den euskaraz adierazteko; kantitatean ere irabazi egin dugu, euskara hiritartu den neurriean esparru berriak lortu ditugu, eta, gainera, gero eta gazte euskaldun gehiago dago. Hala ere, ez gara gauza gure lagunarekin zirriak egiten ari garenean euskaraz gauza goxoa esateko; kotxean gidatzen joan eta haserretuz gero, haserre hori euskaraz adierazteko edo lagunekin hitz egiten gabiltzanean zenbait gauza euskaraz erabiltzeko, *gilipollas, montar un pollo, tío bueno, maciza, estar al loro...*, esate baterako.

Jakin dakigu, euskara gaurkotua eta modernizatua daukagula. Euskara batuak hartutako trenak, momentuz behintzat, ez du joan etorriko txartelik, geltokiz geltoki aurrera egitekoa baizik. Edozein modutan ere, euskara moderno horrek sarritan ez digu balio lagun artean edo kalean erabiltzeko. Eta hori da faltan sumatzen duguna; hain zuen ere, hizkera bat falta zaigu elkarri adarra joteko; taberna baten garagardo batzuk hartzen gaudeanean baliagarria izango zaiguna; haserretutakoan edo pozik gaudenean adierazkorra dena...

Euskararen adierazkortasuna, gure kasuan behintzat, gaztelaniatik dator, ez gare-lako gauza hizkuntzak behar duen gatza eta berakatza euskaraz sortzeko. Askok eta askok gaitasun horri sena deitzen diote, eta badirudi ihartu samarra daukagula, batez ere, herri haundi eta industrializatuetan edo-eta euskararen transmisioak eten bat izan duen tokietan. Ez da, ez, euskararen arazoa, euskara erabiltzen dugunona baizik. Askotan erremintak eta euskararen oinarri sendoa falta zaigu horrelako hizkerak sortzeko.

BADIHARDUGU alkarteak aurreraxeago esandakoarekin jabetu eta gaiak daukan garratzia ikusita, taldetxo bat antolatu zuen aipatutakoaren inguruan hausnarketa egin eta materiala sortzeko asmotan. Eskuartean daukazun *Berbetta Berua* izeneko liburuxka da lehenengo emaitza, eta ez pentsa hori kezkaori — kale hizkera, lagun arteko hizkera, gazte hizkera edo dena delakoa— Deba Ibarrekoa denik bakarrik, Euskal Herriko leku askotan sortzen dabiltzalako horrelako liburuxkak edo materialak: *Manxut, Frexkue, Zegamako Despektiboak, Irainka, Berbeteari Gatza eta Piperra, etab.*

Tradiziotik, gehienbat ahozko tradiziotik, abiatu ginen liburua egiterakoan, Deba Ibarrean eta osterantzean argiaratutako liburuak ere hustu genituen — *Antzuolako Hizkera, Bergara aldeko Lexikua, Zirikidak, Lexikoia, Eibarko Euskeraren Esakerak, Hiztegi Erotikoa, Euskal Lokuzioak...* — Hala ere, oso garbi genuen ez dakit nongo aiton-a-monari behin edo behin entzundako hitzak edo esakerek ez dutela tokirik liburuxka honetan.

Tradiziotik ekiteak arriskua dakar gure inguruan tradizioa baserri girokoa dela-ko, eta gaurko gizartea hiritarra; orduan, arriskua da gaur egungo errealityerako baserri girotik sortutako berbeta beroa erabiltzea. Tradizioa berbeta bero berri horren abiapuntu behar luke izan, kontuan izanda gazteek zaitasunak dituztela berbeta bero berri bat sortzeko. Hori ere etorriko da, eta asmatutako egoera berrietara egokituko da. Ordura arte, tradiziotik balio duena erabili eta ez duena hor geratuko da jasota, gustukua duenaren jakinmina asetzeko.

Gainera, gizarte modernoan *artaburuak, euli kapauak eta zurixak* egon badaude; *zirriak* egin egiten ditugu; *astarraldixak* ere pasatzen ditugu, eta ez txikiak; *atxurrak* harrapau eta gero, *aho bizarrak* haundiak izaten dira eta horrelako egoeretan *abarketia* duen norbait jasatea ezinezkoa izaten da.

Beraz, asmatu oso gutxi asmatu dugu, gainera, uste dut asmatu bakoitzak berea asmatu behar duela, norberaren inguruan sortzen diren egoera berriei aurre egiteko, eta erabileraren erabileraz asmatutako hitza indartu. Erabilera izango da asmatutako hitzaren baliogarritasuna neurituko duena, adierazkorra bada aurrera egingo du; ez bada, jai dauka.

Gehien asmatu dugun ataletan, eta bertan lehen esan bezala gutxi, *Amodioa eta sexua eta Jana eta edana, taberna girokoak* izan dira. Lehenengoan, badirudi euskaran ere, inguru hizkuntzetan bezala, emakumea eta emakumearen gaineko sexua tabua izan dela. Emakumea sekula ez da masturbatu eta Euskal Herrian sekula ez da egon gay edo lesbianarik. Bigarrenean, saiatu gara zerbait asmatzen *pava, raya edo placa* esateko. Dena den, oraindik asmatu beharko da *polen, farlopa, jako* edo horrelakoak euskaraz esateko eta ez gazteleratik hartzeko. Ez da erronka txikia, ez horixe!

Saiatu gara *Berbeta Berua* liburuxkan emakumeendako eta gizonezkoendako diren sarrerak bereizten —(e), (g)—; adibideak euskalki ez-jasoan ematen, eta gainera tokan eta nokan. Ez da, ez, oraingo errealitatea, toka eta noka galtzeko bidean daudelako gure kaleetan, baina kale hizkerak izan duen ezaugarrietako nabarmenena tratamendu hori izanda, eta hor ere tradizioari jarraitu diogu. Erromantiko hutsak garela dioenik izango da, hala ere, ez genuen gure burua lasai izango horrelako ahaleginik egin gabe.

Ez dugu formula magikorik hau konpontzeko, baina bidea ekinez egiten da eta liburuxka hau biderako bizigarri txiki bat besterik ez da.

Aprobetxatu baliagarria zaizuna.



BARANDA
EDERRA EGINDDA JAOK
AURREKO HORI.

BAITTA!
EULI KAPAU
HUTSA
DON-ETA.

despektiboak

despektiboak

● **aberaskillua, -ia:** aberatsari deitzeko forma despektiboa. Aberatsa danari jaixokeratik igarri egiten jakok, beste asko aberaskilluak dittuk. **Ricachuelo, -a.**

● **adarjoteilla; adarra joteko makiñia:** adar joten sarritan ibiltzen dena. *Gure Iker adarjoteille fiña, bai horixe!* **Vacilón, -a.**



● **adurtixa; koipetsua:** gozoa nahi izan eta higuingarria besterik ez dena. Hori mutillori idisko ederra bai, baiña adurti galanta be bai; joan dedilla Otxandixora pikutara! **Baboso, -a; jaboso, -a.**

● **afanosua, -ia:** itxurakerietan ibili eta astuna egiten dena. Mutiko afanosua da, gero, gure semia, belarrondoko baten premiñan ete daguen be. **Fastidioso, -a; molesto, -a.**

● **aguretu (g); txotxatu:** fisikoki edo pentsakeraz pertsona zaharkitu. Zer mutillak, golpian aguretu gaittuk ala? Ekiozue biharrari bihar dan letxe, bestela bixarko baba kanpaiak be bertan joko joskuek-eta. **Envejecer antes de tiempo.**

● **ahoberua; ahozabala:** haundiak botatzen dituena, ia-ia sinestezinak. Hori don ahozabala hori, Mendarotik Gatzagara 100 km dagozela; beruanak kendu! **Bocazas; exagerado, -a.**

● **ahofíña:** beti onetik eta gozo jaten duena. Ez jok ahofíñorrek urdei asko jango, bada be urdeiazpikua eta iberikua, badezpada. **Sibarita.**

● **ahogaiztua; ahozatarra:** zakar berba egiten duena. Hasarretzen danian ahogaiztokua dok, kontu horrekin! **Malhablado, -a.**

despektiboak

• **aldebikua:** borondate ona edo gogo onaren itxurakeriak egiten dituena alderantziz izanda. Argi horrekin, *aldebikua don-eta*. Zer komeni jakon haxe egin; batzutan alde batera, bestietan, bestera. **Falso, -a; hipócrita.**

• **amazulua:** amaren gonapetik ateratzen ez dena. *Ume umetatik amazuloa izan dok eta oin edozer egiteko laguna bihar.* **Mimado, -a; enfaldado, -a; enmadrado, -a.**

• **ardurabakua:** izakeragatik edo beste arrazoi batengatik norbere jardueran ardurarik hartzen ez duena. *Ardurabako galanta hori!* Urtebetian ez jotsen jaramonik egin alkarteko kontuei. **Descuidado, -a; irresponsible.**


• **arraíña; ganaua:** gaitokeriarako joera duen pertsona. *Edarra arraíña egindda jaok; beria berandako eta bestiena erdibana.* **Zorro; bicho, -a; canalla.**

• **artaburua (g); artamalutia (g); astakertena (g); astapistolia (g); kaikua; mozolua, -ia; tontolapikua; txorimalua:** pertsona ergela. *Horri ezer esatia alperrikua don, artaburu galanta don-eta.* **Torpe; tonto, -a; necio, -a.**

• **artoberua (g); babaloria (e); koittadua, -ia:** maleziarik gabekoa eta lasaia. *Hi haiz izateko babaloria!* *Zelan esan*

dotsan hori Mikeli? Ikusiko don bueltia. Lerro, -a; ingenuo, -a.

• **astokillua (g); astopotrua (g); takarrá; saskarra:** bere jardueran burua gutxi eta, gehienetan, indarra erabiltzen duen pertsona. *Eskolan astokillua zuan eta urtiekin ez dok bape aldatu.* **Bruto, -a; bestia; animal.**



despektiboak

• **autubatzailia:** besteen kontuak jakin nahi haundia dituena. Kontuz *horrekin*, autubatzaille hutsa dok-eta. **Pipona; cotilla.**

• **barandia; narru sendua:** pertsona bihurri eta lotsa gutxikoa. Bere etxian halako barandia badok, kalian zer izango ete dok. **Jeta; descarado, -a.**

• **bargaztia (e); bargaztonia (e):** itxura baldar eta lotsa gutxiko emakumea. *Bargaztia gauzia; zelakuak esan dendako kajeriari!* **Fresca; descarada.**



• **basaganaua; hezibakua:** inongo errespeturik ez diena ez pertsonei, ez gauzei. Pagoko eskolan ibilliko zuan, baiña alperrik. Lasturko zezenak baiño basaganau haundixagua dok! **Asilvestrado; -a; animal; salvaje.**

• **baztar nahastailia:** saltsa guztietan parte hartzeko zaletasuna duena, baina nahi eta ezinean ibiltzen dena. *Baztar nahastaille hutsa don; oin bedarra egin jon Gaztetxerako bafliak erostiak!* **Gozua jaon jentia! Liante; salsero, -a.**

• **belendriña:** umiendako erabiltzen den hitza, okerra edo sorgina esateko. Zertan habil hor balendriñori; harrapatzten bahaut ikusiko don! **Chinche; travieso, -a.**

• **belunabua; euli kapaua; odolbakua:** gatz gutxiko pertsona. Ez haizela konturatu zer egin daben, hi haiz izateko belunabua! **Sangre de nabo; parado, -a.**

• **berbalapikua; kardantxillua:** hitz jario haundia duena. Ezin Jonat berbalapiko horren onduan egon, kriston abarketia jakan-eta. **Loro; cotorra.**

• **bizitzuria; friztxia; azerixa:** pertsona bizia, geldirik egoten ez dena. Horrendako ez jaok lotuko daben sokaik. Hori dok bizitzuria! **Vivarracho, -a.**

● **burugogorra; kasketosua, -ia; tematixa:** bereari eusten diona nahiz eta arrazoirik ez eduki. *Jaionek Intxortako puntia Bizkaixa dala, eta aldemeneko danak ezetz. Gero Zaragozakuak direla burugogorrak!* **Cabezón, -a; terco, -a.**

● **diabrua:** pertsona okerra. *Diabrua bera baiño okerragua don hori mutikuori.* **Bala; elemento; bicharraco, -a.**

● **doillorra:** pertsona zital eta harroa. *Doillorra haiz hi, doillorra; eskolan burrukan hi baiño gutxiago direnekin bakarrik sartzen haiz, billau egixak heure taillakuak.* **Un puta; ruin; mezquino, -a.**

● **dontsua, -ia:** pozik bizi den pertsona. *Dontsua izateko gure arrebia moduan bizi bihar dok: egun osua igetargixari begira.* **Feliciano, -a; panchorro, -a.**

● **drogosua, -ia:** zalaparta guztieta ibili eta zalapartak asmatzen dituena. *Drogosuak Arrasatekuak; beti jaleo danen erdi-erdixan harrapatzen jittune.* **Bullas; follenero, -a.**

● **duangua; jan txakurra:** inoiz ordaintzen ez duena. *Habilidadia euki bihar dok, txikiteuan zapatuero egin eta sekula ez ordaindu.* *Eskerrak kuadrillan duango bakarra daguan!* **Chupóptero, -a; buitre; gorrón, -a.**



● **erlamíñua; mandaelixia:** pertsona astuna. *Hori erlamíñuori aldemienian eukitta kaja bat aspirina gutxi dok.* **Plasta; caparra; coñazo; plomo; palizas.**

● **erria; ipurterria; erretxina:** oso erraz haserretzen dena. *Ezin leixo larregi zirikatu, erriagua dok zera baiño.* **Gruñón; cascarrabias; irritable.**

● **fandangia (e); flamenkia (e); freskatxonia (e):** parranda asko gustatzen zaion emakumea. *Fandanga ederra izan zonan gaztetan, eta oin be, lehengo lepotik burua.* *Ondo egitten jon, egindakua egindda!* **Pingo; pendón; golfanta.**

despektiboak

• **farola; haundigurakua; haundiuste-kua:** bera dena baino gehiago era-kusten duena diru kontuan, kirolean.... Bergara aldian ez jaok kalian argi biharrik han dagozen farol pilliakin. **Chulapo, -a; ostentoso, -a.**



• **gangaillua; kankaillua:** pertsona haundi eta baldarra ibilkeraz. *Horrek gangailluorrek dakan itxuriakin gutxienez saskibaloiko jokalarixa izango don.* **Desgarbado, -a; torpón, -a.**

• **gibelaundixa; potroaundixa (g); zarrapela:** ardura gutxiko pertsona. *Gibelaundixa haiz gero, afari-rako arrutzak ekartzeko heu geratu eta ez ekarri.* **Huevón; cojonazos.**

• **gizurterua, -ia; gizurtixa:** gezurra barra-barra erabiltzen duena. *Gizurtero patatero, ogi txiki panadero.* **Trolero; bolero; mentiroso.**

• **gogaikarrixka; higuengarrixka; arrabixagarrixka; amorragarrixka; potrozorrixa:** amorroa sortu edo merezi duena. *Burutik gora egindda najaok hirekin, gogaikarrixori!* **Mosca cojonera; ladilla; plasta; pessado, -a; asqueroso, -a; pelma.**

• **gosia:** dirua edo bestelako gauzak edukitzeko grina haundia duen pertsona. *Biharrian nerekin diharduena gosia don; ama be saldu egingo leuke dakana baiño gehixau lortzeko.* **Pestetas; codicioso, -a; egoísta.**

• **haixia; haizetsua; aldixa:** temperamentuz edo aldartez erraz aldatzen duena. *Gure maixua baiño hai-xagoik! Horri ez jaok antzik emoteik.* **Veleta.**

● **halamoduzkua; badezpazdakua; zelabaittekua:** kalitate txarrekoan, pertsona edo tresna. —*Hori kanpi-nori halamoduzkua don.* — *Orduan jibia modukua. Dudosoa, -a; deficiente.*

● **harrokilla; harroskua; harrua; jai-kixa:** bere ustetan besteak baino gehiago dena. *Harrokillo galanta hori, eta txakurran putza be ez jon balio. Chuloputa; pedante; vanidoso, -a; presumido, -a.*


● **ipurgarbitzaillia; papeljalia:** gauzak gehiegi laudatzen dituen pertsona eta, gainera, bere onerako. *Egunen baten nagusian frakei pegauta geratu bihar haiz, ipurgarbitzaillio! Lameculos; pelotillero, -a.*

● **ipurlokia; kakapirrixa:** leku batean geldirik egon ezin dena. *Egon hadi geldik, ipurlokioi. Culo de mal asiento; culo inquieto, -a.*

● **itxurabakua; baldarra:** itxura txarra duena. *Hori zan mutil edarrakin zihero itxurabakotuta jaok. Baldragas.*

● **jareiña; fardela; narrasa; arlotia:** norberaren itxurari edo eginbeharrrei erraz uzten diona. *Hain jareiña izetia! Danari laga jotsak; begiratik ze ule griña eta erropa jira darabilen. Desgarbado, -a; dejado, -a.*

● **kakamutikua; kakaneskatillia; kakaumia:** oraindi ume dena,



nerabe izatera iristen ez dena. *Zelan edango jok horrek kalimotxua, kakamutikua dok barren? Crío, -a; niñato, -a.*

● **kakanarrua, -ia; nanua, -ia; txatxarría:** garaieraz txikia dena. *Hi, mutikua, zer egitten dok tabernan, ondiok barrara be ez haiz allegatzen-eta? Kanspora kakanarruori! Cacanajo, -a.*

● **kakatixa; kakaiñerua:** beldur haundia duen pertsona. *Zezenan aurrian hire kantzontzilluak ikustekuak izango dittuk,*

despektiboak

kakatixori! **Acojonado, -a; miedica.**

• **kale txakurra:** bizi osoa kalean ematen duena. Hamalau urte bete orduko kale txakur galanta zuan hori. **Golfo, -a.**

• **kanpolarrosia:** etxetik kanpora portaera zintzo eta atsegina duena; etxeán, aldiz, erabat aurkakoa. Ka-

lian gizon atsegiña zuan, baiña etxian bizimodu ona ez jotsak emon andriari. Kanpolarrosia izan, besteik ez jaok hamen! **Pura fachada.**

• **kokolua, -ia; leluia, -ia; mokolua, -ia:** adimen gutxi duen pertsona. Kokolua izatia hori dok! Emongo nixkio pare bat belarrondoko espabilatzeko. **Bobo, -a; zafio, -a.**


• **letxarrerua, -ia:** 1- ganora gutxirekin jaten duen umea, desorduetan eta, gehienbat, gozokiak. Zer zabizie hor armarixuan, letxarreruok? Gero bazkal-tzen zer jan bihar dozue? **Goloso, -a.** 2- Lapur txikia. Ez dok hori, ez, bankuetxe batera lapurretara juango; beti ibilliko dok fruta, kolonia eta holakuak ohosten. Letxarrerua dok-eta! **Man-gui; chorizo; ladronzuelo, -a.**

• **lotsabakua:** lotsarik ez duena. Hori don izateko lotsabakua, amari be barre egitten jotsan horrek. **Jeta; sinver-güenza.**

• **lupua; malapartaua:** azpijokoan dabi-lena. Argi horrekin, lupu bat besteik ez dok-eta. **Falso, -a; desgraciado, -a.**

• **maiñosua, -ia; negartixa; mikua, -ia:** negar haundiak egiten dituen umea. Hi umetan maiñoso bat hintzan, batez be gabaz. **Llorón, -a; llorica.**

• **marimaistria (e); marisarjentua (e):** agintzea gustatzen zaion nes-



katoa. Hori dok izateko marimaistria; danak hartzen jittuk mendian. **Mandona.**

● **marimatrakia (e); matrakia (e); martxanteria (e):** geldirik egoten ez den neskatoa. *Eskolan formalagua izango haiz hi, marimatrakiori! Revoltosa.*

● **melengia:** gozoaren gozoz, gogaikarria dena. Hori don izateko melengia! Dan gozuakin eulixak be gogaittuko littuke. **Empalagoso, -a.**

● **mizkiña:** oso gutxi jaten duen pertsona, eta ez edozer. *Umetan mizkiña zuan jaten, baiña kankaillu ederra egin dok.* **Inapetente; mico, -a.**

● **molidakatxa; aldreibesa:** edozein jarduera ikasten zaitasunak dituena edo jarduera hori zuen eta behar den moduan egiten ez duena. *Universidadian ibillittakua izango dok, baiña holako molidakatxik ezin leikek topau hasi Bilbon eta Donostiarra bittarian.* **Torpe; desmañado, -a.**

● **mostrongonia (e):** kopeta iluna izaten duena. Hori don mostrongonia, ikustiak be bilddurra emoten jon. **Tosea; seria.**

● **pikuterua, -ia:** salataria, umeen hizketan. *Hi pikutero bat haiz; heu juan haiz irakasliagana kristala zeiñek apurtu daben esaten.* **Chivato, -a.**

● **santuartua:** zerbaitetan aurrera egitea lortzen duena beste baten laguntzari esker. *Bedeinkaziño guztiekin sartu zuan biharrian alkatiaren santuartu hori.* **Enchufado, -a.**

● **sasiletraua:** bere ustetan jakintsua dena eta jakintsu itxura egin nahi duena. Horrek sasiletrauorrek abadiak baiño berba haundixauak erabiltzen jittuk. *Artaburua galanta, bai!* **Sabi-hondo; pedante; listillo.**

● **sikua; irkiña:** dirua poltsikotik ateratzea kostatzen zaiona. Hori don izateko sikua, dirua nahikua eta basuraik basura ibiltzen don jateko billa! **Agrado, -a; tacayo, -a.**

● **sorgiña (e):** izakera bihurri edo gaiztoko emakumea. *Sorgiñori, ez don hik zerua irabaziko daukan jokabidiakin!* **Bruja.**

● **txaplatia (e):** hitz jario haundia duen neskatoa. *Isilduko haiz, txaplatori; inguru dana aspertu bihar don-eta.* **Charlatana.**

● **txatxalia (e); txotxolua (g); txolíña:** pertsona berritsu eta kaskarrina. *Isilik egon hadi txatxaliori!* **Alocado, -a; casquivano, -a.**

● **txepela; memelua, -ia; ganorabakua:** bizitasunik ez duen pertsona. Horrek ez gatzik eta ez berakatzik, txepel hutsa don. **Insustancial.**

despektiboak

• **txoriburua; kaskariña; kaskajua, -ia; buruariña:** ganora gutxiz eta arinkeriaz jokatzen duena. *Txoriburu galanta haiz hi!* Autua zabalik laga eta giltzak alddian direla juan zinera. **Ligero, -a de cascос; descuidado, -a.**

• **zazpikixa:** haserretzeko edo kezkatzekeko gauza gutxi behar izaten

duena. *Zazpiki samarra zuan gaztetan, gerora lasaittu dok hori. Badakik, urtiak ez dittuk alperrik pasatzen!* **Cascarra-bias.**

• **zurixa; blanco española:** pertsona alferra. *Hori dok zurixa izan!* Laneko erremintia ikusi orduko gaixotu egitten dok. **Vago, -a; vagoneta.**



BATA DALA BESTIA DALA,
ATSALDE OSUAN ERNEGAU
ERAITTEN HABIL! JUAN HADI
HAIXIA HARTZERA EZ BADOK ZOPA
SALDA EDERRA HARTU GURA!

LASAI NESKA,
LASTER JOANGO NON.
EZ JAKANAT
DEMANDAN EGITTEKO
GOGORIK.

haserrearen
adierazleak

haserrearen adierazleak

• **Anboto txapelakin egon; betoskua euki:** haserre aurpegia eduki. Argi ibilli hadi tabernarixakin eskatzeko orduan, Anboto txapelakin jaok-eta. **Tener careto de cabreado, -a;** tener careto de mosqueado, -a.

• **belarrezkiñakua emon; belarrondokua emon; matrailleku emon:** eskua zabal-zabalik dela



masailean ematen den zaplada. *Mutikuak, formal ez bazabizie, belarrezkiñako bana emongo dotsuet. Dar una leche; dar una galleta; dar un cachete.*

• **demandan egin; sesiñuan ibilli:** eztabaidan jardun. *Etxera berandu aillegau eta, gaiñera, demandan egin naijan aittakin. Estar de bronca; armar follón.*

• **ernegau eragin:** lasai dagoena urduri eta haserre jarri. *Umiak, kalera! Ernegau erain besterik ez dozue egittenteta. Inflar los huevos; poner hasta las pelotas; poner hasta el moño; cabrear.*

• **erretxinduta egon; pipartuta egon:** jenio bizian egon. *Tabernan etxera juan ezinga geratu giñuazen, eta juan ez banitzuan hobe; etxian zaharra erretxinduta jauan-eta. Estar de mala leche.*

• **gozua egon:** zeharo haserretuta egon. *Gauzia bero-bero jaok, hor ez jaok ba-regurarik; badakik, gauzak aldrebess urten ezkero, gozua jartzen dok enkar-gaua. Estar rebotado, -a; estar borde y mosqueado, -a.*

• **ipur txuntxurrian ostikadia jo:** bizkar hezurra amaitzen den lekuan jo. *Ha zelako saltua emon eban ipur txuntxurrian ostikuakin jo nebanian!*

Darle una patada en la punta de la canaleta.

⦿ **kristonak entzun; beriak eta bi entzun:** norberaren kontra haserre esandakoak entzun. Kristonak entzun jittunan Mikelek Gaztetxeko bazarrian; izan be, ahozabal bat doneta. *Oír las de Dios.*

⦿ **kristonak esan; beriak eta bi esan:** norbaiten kontra haserretutakoan haundiak esan. *Beriak eta bi esan juan Alkatian kontra. Montar la broncea; montar un pollo; decir las de Dios.*

⦿ **muturraldia euki:** haserre egon. *Gaur gurian muturrak egongo dittun bazkalatzeko; Mikelek jakan muturraldia! Estar de morros.*

⦿ **pikulittara bialdu; haixia hartzena bialdu; Otxandixora pikutara bialdu:** gauza edo pertsonaren bat zakar arbuiatu. *Juatia jakak Alkatiak pikulittara, tabernak 01:30ian itxi; zeiñen buruan sartzen dok hori! Mandar a la mierda; mandar a freír espárragos.*

⦿ **suak eta garrak hartuta egon; txinpartak darixola egon:** oso haserre egon. *San Prudentzioko bide kurutzian bape kulpa barik atzetik jo najuan aurreko autua, eta han urten juan txoferran aldamenekuak suak eta garrak hartuta. Como un(a) energúmeno, -a.*

⦿ **norbaitek bere onetik urten:** pazientzia galdu. *Neure onetik etaratzen naison potrozorri horrek. Perder el temple; perder el aguante.*

⦿ **norbaitek beste bat bere onetik etara:** pazientzia galdu eragin. *Mikel berekoi jartzen danian nere onetik etaratzen nau. Poner del hígado.*



• zopa saldia emon; berotua emon;
gain egurra emon; egurtu: ji-
poia eman norbaiti. Lapurretan ha-
rrapau jittune denda barruan, eta kua-
drilla baten artian emon jotsene zopa

salda edarra. Dar una manta de
hostias; dar una sarta de hos-
tias; darles para el pelo; dar
una paliza.



HORI DOK
SAKU
PATATIA!

HIK DANENDAKO
DAKAK ZERBAIT, ETA
HEUK AJURIA ENEAKO
JAUNA EMOTEN DOK
HORREK
AZAORRIXOKIN

ezaugarri
fisikoak

69

RAZONES

ezaugari fisikoak

• **apatxak:** esku haundiak. *Horrek ez dittuk eskuak, horrek apatxak dittuk.* **Manotas.**

• **atzezabala; atzebikotxa:** ipurdi haundiak dituena. *Atzezabala don, baiña arpegi politta jakan.* **Culón, -a.**

• **azaburua:** buru haundia. *Azaburu gaitanta jakak, baiña lepo gaiñian erabiltzeko bakarrik.* **Cabezón, -a.**

• **azaorrixak:** belarri haundiak. *Horrekin azaorrixokin ez jaok bentiladore faltarik.* **Orejotas; orejón.**

• **begiokerra:** begiak alde ezberdinetara begira dituena. *Heuri begira daguela-kuan, aldemenera begiratzen jon horrek begiokerrorrek.* **Mirar para Tude-la; ojo bizeo.**

• **fiua baiño estuagua izan:** oso pertsona iharra izan. *Eskerrak erropia*



haundixa eruaten daben, bestela, ikusi bez; fiua baiño estuagua don-eta. **Ser un palillo.**

• **gaztaia:** burua. *Harri batekin gaztaian jo ezkerro, lurrera joiak. Melón.*

• **girgilluak euki:** maminak sobran eduki. *Gimnasiora juaten hasi bihar nok honek girgilluok kentzeko, laster jatok udia-eta. Tener michelines.*


• **hankaokerra:** hankak parentesi forman dituena. *Itxuria, hire onduan dagon hankaokerra zaldi gaiñian ibiltzen gazteik hasi zonan, edo bestela horren koskabilluak astunak dittun. Patizambo.*

• **ipurriigarra:** ipurdi estuko pertsona. *Bata atzebikotxa, bestia ipurriigarra; anaiaik direnik be ez jone emoten. Se-co, -a.*

• **kakua:** sudur okerra. *Horren kakua eta lorito baten pikua antzerakuak. Napia aguileña.*

• **kedarria baiño baltzagua:** larru azala beltzarana izan. *Ordu bete solariunian egin, eta kedarria baiño baltzagua urten juan Mikelek. Más negro que los cojones de un grillo.*

• **porria:** sudur haundia. *Horrek jakak porria! Oiñetakuekin baiño lehen surrakin joko leuke hormia. Tocha; napia grande.*



ezaugarri fisikoak

• **saku patatia:** gizen egon. Negurako preparatzan ala? Saku patata tipua hartzen hasi haiz. **Gordo, -a.**

• **tximak; griñak:** ile luze eta nahasia. Ezer ikusten dok horrekin tximokin? Ipinik zinttaren bat edo zeozer. **Greñas.**

• **txangamehia:** hanka meheak eta luzeak dituen pertsona. Gizurra dirudi, baiña frakak erosteko kriston arazuak eukitzten jittun hain txangamehia izanda. **Patudo, -a.**

• **zilbota:** janarekin eta edanarekin haitzako tripa. Hainbeste garagardo edanda, ez dok harritzekua holako zilbota eukitzia. **Panza; barriga.**

• **ziztriñak:** 1- gorputzkeraz gauza gutxi dena. Ziztrin bat don hori, libra bat pasautxo. **Esmirriado, -a; poca cosa.** 2- geldigorra. Geldik egon hadi, ume ziztriñori! **Culo inquieto, -a.**



ZER GURA
DON?

AHO BIZARRAK
KENTZEKO ONENA
ATZOKOAKIN
JARRAITZIA.

KOKA BAT
IZOTZ
ASKOKIN...


BAI, ZUREZKO
TRAJIA BIZKORRAU
JAZTEKO BAI...

jana eta edana
taberna girokoak

jana eta edana / taberna girokoak

aguado: alkoholik edaten ez duena.

Aguado bihurtu biharko gaittuk hille batzutan; holako martxan ezin juau jarraitu. Abstemio, -a.



aho bizarrak euki; aho zaperua euki:

juerga egin eta biharamunean aho latza eduki. Zer, laranja jaten? Aho bizarrak kentze aldera ala? **Tener lengua de esparto; tener reseco.**

a eruan; lapur bilddurrik

juan: mozkor-mozkor jan. Hamaikak arte txikiteuan ilbora karga ederra eruan jon. do, -a.

ragardo... jana egin:

ragardo edo tokatzen dežari edan. Poton Tabernan dixan ardau jan dezentia egin al aurretik. **Ponerse hasta de vino, cerveza... Posa las orejas de vino,**

...

lia harrapau: erdi mozi-

tu zerbeza eta marijuana haizatekin atxurkilla politta harran. **Pillar el punto.**

npaiak jo: baxkal ordua

ldu. Baba kanpaiak jo juek eta etxe aldera egin biharko juau. **La hora del fafo; la hora de pastar.**

baraua apurtu; baraua hausi:

aurreko egunetik, gutxienez, torren jan ezari amaiera zerbait janda. **Txorixo mutur**

batekin apurtu giñuan baraua goizeko zortziretan. Jamar; comer; llenar la tripa.

• **bisigu begixak:** juerga egin ondoren, bihamarunean geratzen zaizkigun begi gorri eta haundituak. Zer, gaba osuan elektrikia kin sopleatzen ibilli haiz ala? Horrek dittuk bisigu begixak! Ojos de clavo.

• **botia zimurtu:** zahato barruan dagoen dena edan. Ez jok denpora asko egin botia zimurtzen, arrai-xua! Darle culo a la bota.


• **burura jo:** alkoholakedo beste gauzaren batek burura igo. Goizeko zortziretan baraurik haizpurutxu bat erre najuan eta aguro jo jostan burura. Subirse a la cabeza.

• **entierro zibilla egin:** asko edan duenari etxeraino lagun egin, bera bakarrik joateko gauza ez delako. Bart harrapau juan harrapatzeko atxarra! Kerten eta guztikua. Azkenian entierro zibilla egin jotsen. Llevar a rastras a casa.

• **entramia euki; sakia euki:** jateko googo haundia eduki. Horrek jakak entramia! Txahal osua jango leuke. Apetito.

• **farola hustu:** botila ardoa hustu. Lehenengo farola hustu juau, bigarrenari be gutxi falta jakok eta holako martxan hirugarrenak perra hots edarra eruan bihar jok. Darle culo a la botella.

• **galduteiro:** gaupasa eginda hurrengo egunian tragoa eskuan duela nora-



jana eta edana / taberna girokoak

ezean dabilena. Makiña bat galduetiro jauan Gaztetxe aurrian goizeko zortziretan. **Gaupasero, -a; desfasado, -a.**

• **haizpurutxua:** marihunarekin edo ha-



txisarekin egindako zigarroa. Hik hire etxian batutako marijuania mundiala jaok; hiru haizpurutxokin edarra atxurkillia harrapau giñuan. **Peta; canuto.**

• **hartxabala:** hatxis zati haundia. Ez Jon merke ipiñi hartxabala, baiña besterik ez jaon. **Placa.**

• **hartxinga zurixa:** kokaina harria deean, eta ez hautsa. Hartxinga zurixa besterik ez jauan, hautsa ikusi be ez. **Roca.**

• **hartxingia:** hatxis zati txikia. Hartxinga dezentzia sartu egixon, jente asko gao-naz-eta. **China.**

• **iruntsi:** jatekoa azkar jan, ia kalte egiteko moduan. Hik jan ez dok jaten, hik iruntsi egitten dok. **Devorar; tragar la comida.**

• **kopaua egin:** zerbait jan. Kopaua egingo jonau? Ordua badon, gaiñera, tripa zorrixak jakazanat. **Jamar algo; jalar.**

• **lafiau; atala harrapau; atxurra harrapau; atxurtu; txilibriskau:** burua garbi ez eduki alkohol larregi edateagatik edo beste zerbaitegatik. —Zer moduz Oñatiko San Migeletan? —Betikua, ligau gutxi eta lafiada edarra harrapau. **Mamarse; colocarse; cocerse.**

• **marijuania:** marihuana belarra. *Hiru marijuana landaristik kriston poltsakadia etara jon Mikelek.* **Marihuana.**

• **mutxikiña:** haizpurutxu baten azkena. *Pasaidak hori mutxikiñori atzazkal gustua hartu baiño lehen.* **Chicharra; pava.**

• **ok egin; ple egin:** jatekoarekin edo edatekoarekin bete. *Ez juat beste garagardorik nahi, ok egin juat.* **Estar hasta las cartolas de comida o bebida; estar hasta las cejas.**

• **surra zurittu:** marra bat sartu. *Edarra illaria jauan komunian sartzeko, surra zuri-zuri maki-llauta urtetzen juan jentiak.* **Meterse una raya; meterse un tiro.**

• **tripa zorrixak euki:** goseak egon, eta horrela egonda tripek ateratzen duten zarata. *Hamaikak aldera tripa zorrixak martxan jartzen dittun.* **Cantar las tripas.**

• **txahala egin:** zerbaitek kalte egin eta sabelean daukaguna ahotik bota. *Badakin, azkenengo traguak kalte egin eta txahala bota najonan etxera erretirau aurretik.* **Echar las pelas; potar.**

• **txikiteua egin:** tabernarik taberna ardauek, zurituak, mostoa... edaten ibili. *Txikiteuan hamar txikito jo eta*



jana eta edana / taberna girokoak

lapur bilddurrik barik joan giñuazen etxera. Privar; potea.

txitiak beste jan: oso gutxi jan. Bardin dok horrekin babak ipiñi, makarroiak edo azia txitiak beste jaten jok-eta.
Comer como un pajarito.

zerria erabilli: jatordu baten asko eta bizkor jan. Ha zuan ha zerria erabilli

Sagardo Egunian plazan! Ordu erdixan dana amaittu zuan; badakik duan danian gauzia... **Ponerse las botas comiendo.**

zurrutian ibilli: tragoak hartzen ibili. Goixaldera arte ibilli giñuazan zurrutian. **Ir de tragos.**



HAINBESTE
TXAPAPER A BOTA
BIHARRA... TXAPELA
EZTALA BAKARRIK
BURUAN IBILTZEKO,
TXIKITO!

amodioa
eta
sexua

amodioa eta sexua

• **adar puntak:** titi puntak. *Bero-bero jartzen naiok horrek adar puntok kami-setan markauta ikustiak.* **Pezones.**

• **afroia:** sexualki erakargarria dena. *Hori don gauzian edarra! Harrapauko baneu afroi hori.* **Sexy.**



